



LIBRERIA KRESALA PAPELERIA

San Roque, 4 - Hermosilla, 2 - Tel. 34 - Santo Domingo de la Calzada (Logroño)

Libros para jóvenes
Papelería y material
pedagógico moderno
Juegos recreativos
Reproducciones de
Grandes Pintores
Se reciben encargos
de imprenta

Santo D. de la C.
Abuztuak 4-1973.

Adiskide eta Jaun agurgarri ori:

Bizi moldez aldatu ondoren, aita Lafitte, emen, Euskal Erriaren muga untan bizi naiz. Agian, zuk ere ezagutuko duzu erri edo iri au. Batzu diotenez, badu euskal izena edo deitura ere: Ozka barte. Baina, noan arira.

Bi gauza eskatu nai nizuke, adiskide Lafitte. Bat, nik orain ez dut jasotzen HERRIA, leen, Donostian, asteoro xuxen artzen nuen asteroko maitagarri ori. Bestalde, bear dut irakurri alde ortako berriak jakiteko. Mesedez, bidali, beste edozeinek bezala ordainduko dut eta.

Bi. Zuk argitara emandako obrak nondik eta nola aurkituko nituzke? -Egia esan, aita Lafitte, oso pozik irakurtzen ditut emen, zure iritziak euskal literaturari buruz. Manterolan eresia edo, badut zure Loretegiaren bigarren alea. Adizu! Mesedez, arren eta arren, bidali or zure eskuetan daukazun zure gaurdeinoko obra guziak. Delako "contrarrebolsa" bidez ordainduko dizut: esate baterako, Loretegia osoa, eta beste zombait obra.

Ta gaurkoz besterik ez.
José Lasa.

Zuzenbidea: -José Lasa. -C/S. Roque Nº 4.
Santo Domingo de la Calzada. Logroño.

José Lasa

Lic. José Lasa Apatategui
PROFESOR

Nere Zuzendakaria

Julio de Urquijo, 10 - 2.º dcha.
Teléfono 435 29 26
DEUSTO - BILBAO - 14

P. Lafitte jaunari agur eta besarkada bat:

Gogoratzen zera mola izan ginan bi gizo
mezko zu ikusten, joan den larunbatean,
ekainak 4? Bi horietarik magusi edo
adimaz leharrena nair, gelan zure esker aldetik
esker aldean Iarrila egon zena. Oso kontent
etorri edo itzuli ginan que herrira. Hemen

Behar zuretzako, Iain agurgarri hori, zenbait
goxoki mota, zuk, laueko denboran, daslatzeko.

Berrin diosut: oso kontent itzuli ginala. Ta
eskerrak zuri, orain eta beti, zuk zuri emanda
ko liburutzko zaharregaitik. Hitegiaren arakoa ondo
koupanduko da. / Ta gaurkoz bestetik ez.

P.D.

Aita, baduzu hor, paper eta
liburu zahar artean, gaiteluzar-
en liburura bat, liburu txikien
bat? Ejan nahi da, bat baino
geiago, ta niri emateko moduan?

Mesede, askatasun eta orantzen.
Horri nuen beste aldena duzu nere
zuren bitan. Berriz ere, agur,

Zun miresele zintzo ta
betiko

Joxe Lasa Apalategiuk